

## **KONTROL MOZIOA**

### **Lurraldebuseko murrizketak direla eta**

Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko irailaren 7an, bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoa -Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izenekoa- argitaratu zuen Foru Aldundiak. Argitaratutakoaren arabera, onartutako aurreproiektua jendaurrean erakutsi zen hilabetez. Epe horretan, edozein pertsonak edo entitatek aurreproiektuari egoki irizten zituen alegazioak egitea zuen.

Aldundiak, 2017ko urriaren 6an, foru agindu bidez, ebatzi zuen luzatzea 2017ko urriaren 23ra arte alegazioak eta oharrak aurkezteko epea. Agerikoa da esleipenaren aurreproiektua egiterakoan ez dela adostasunik bilatu eta ez dela inongo kontrasterik egin ez herritarrekin ez zerbitzua jasotzen duten udalerriekin.

Gainera, Foru Aldundiak aurreproiektua behin betiko onartuko balu, egungo garraio-zerbitzuak -zer esanik ez 2015eko ekainean lizitazioan jarritako egitasmoarekin alderatuz- murrizketa nabarmena izango luke.

Murrizketa honek ez die bakarrik Donostiatik kanpo bizi diren gipuzkoarrei eragiten, baizik eta donostiarroi ere bai.

Alde batetik, donostiarroi ere Gipuzkoako beste herrietara bidaiatzerakoan murrizketa hauek nabarmen eragingo digute eta bestalde jakin badakigu Donostian gaur egun dagoen ibilgailu pribatuaren trafikoaren erdia herrialdeko gainerako udalerrietatik datorrela. Hala eta guztiz ere, Udal Gobernuak ez du inongo neuririk publikoki iragarri honen inguruan donostiarron interesak defendatzeko, beste udal batzuek publikoki egin duten bezala (Usurbil, Hernani, Andoain eta Villabona).

Batzordean, honetaz interpelatuta, Udal Gobernuak ez zuen zehaztu nola defendatu dituen donostiarren eskubideak eta interesak gai honetan.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

**EH Bildu talde politikoa**  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
[eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus) - Tel. 943481027 -

- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean egin beharreko lanak egin ditzala Lurraldebusen murrizketarik izan ez dadin eta, hartara, Donostiako autobus erabiltzaileak kaltetuak izan ez daitezen eguneroko zerbitzuetan.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

**Ayem Oskoz Urrtikoetxea**  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia